

ATV. 6994

---

ERENDERI TAR ERAIMVNDĀ ABA

~ 1881-1916 ~


# OLERKIĀK



TOLOSA'N  
I. LOPEZ MENDIZABA'EN  
IRARKOLAN

---

---



M. 16866  
R. 8871



Efenderi'tar Efaimunda Aba.



**Erederi'tar Eraimunda Aba**

(1881-1916)

**OLERKIAK**

---

1935.—Tolosa'n: I. Lopez Mendizabal'en Irarkolan.





*Astibia ta Etxegoyen, Sarbide ta Aldako'ar*  
José Ramón Gregorio Errenderian jayo zan  
1881'ean, azaroak 17 zituala. Oyartzun'go  
mendietatik Errenderi bařena datořen eřeka  
ondoan dago bere jayotetxea: Fanderia. In-  
guruko lertxundi, zumardi, arkesti ta makal-  
degiak badakite aren aurtzaro alayaren befi;  
bai ta ere Fanderia'tik Aranguren-basefi al-  
dera dauden sagasti ta gereiztiak. Oyan-otsak,  
mendi-oyartzunak, txori-abestiak, lore ta zu-  
gaitzen izenak, San Markos ta Aya-tontorfen ar-  
tean dauden malda, muño, ibar, zelai ta zoko  
atsegiñetan entzun ta ikasi zituan.

Amairu urteko mutili mardul, zuri-gořia  
zala Lekarotz'ko ikastetxera juan zan; adiski-  
de batzuek aurretik arako bidea erakutsi-ta.  
An sartuz-geroztik aurtzaroko euskera goxo-  
gaxua, lotsatuta bezela, ixilik gelditu zan. Al-  
di artan lekaide geyenak *integristak* ziran; ta  
integrista berezkoak ziranez, euskera ta Eus-  
kalefiaz ajola gutxi. Irakasle batek bakafik

euskerari begi onez begiratzen zion; ta Virgilio'ren *Eneida* ta Horacio'ren *Arte Poética* tartean, bere Euskaleñiarenganako maitasuna, ezti tantoak antzo, ixurtzen zuan. Azkue apai-zak orduan atera beña zan "*Euskalzale*"-a Etxalar Abak ikasleai agirian irakurtzen zien.

Emeretzi urte zituala, buruñurdunen bizitzari lotu zitzayon, Lekarotz'en bertan; eta eskeintza egin bezin laxter, Madrid'era, El Pardo'ko lekaidetxera bidaldu zuten. An, atzeñian, ango bizimodua ikusita, bere Abeñiaganako zaretasun bizia sortu zitzayon. El Pardo'ko mutilak etziran noski Eñenderiko mutil sendoen antzekoak!

Andik edo emendik bereganatu oi zituan orduan ateratzen asi ziran asteroko abertzaleak; batez ere *Gipuzkoara* asieratik begibegikoa zuan. Eta bere Ama, bere Abeña ondoondo ezagutu zuanetik, buru-biotz-kemen eta indar guztiak berari opaldu zizkion. Euskerari osoro eman zitzayon, eta euskalgaietz landa etzuan ezer entzun nai.

Lekaide-barutia beste erara antolatu zutela ta, 1908'an El Pardo'tik Nafáru'ra etoñi zan, ta emengo nagusi beñiak Lizaña'ko lekaidetxera bidaldu zuten. Bere lanik bikaiñenak Lizaña'n egin zituan. Baño lan oyek egiteko jañi zizkioten eragozpenak nork asmatu? Berak zerbait adieraziko digu:



1911-III-2

Arantzadi'tar Ingartzi jaunari.

...“Jakín bear dezu gebendu didatela ezer idazteko abertzalien izparingiyetan. Ala ere ikusiko dut iya al nezaken ala ez obenik gabe idatzi; eta al badut, ez diot jaramonik egingo eragozpenari”...

Norbaitek baieztatu zion noski *obenik gabe* idatzi zezakeala. Onela zion beintzat geroxeago Arantzadi berari: “Azkue'tar Dunixi etoriko zela uste nuen egun abetan; bañon zaita zai egon-ta nekatu naiz itxorotzen. Izan liteke safi etortzia; bitartian, ordia, agindu nizuna Aralar'en bete gabe dago. Oregatik bidaltzen dizkitzut zazpi idazkun. Geyo idazteko asmuakin gelditu nintzan Gafilan (uztailan); bañon il obetan deustarako betarik ez dut izan. Bai ta ere gogua baidaukat erdera utzi ta euzkera garbiyari ekiteko. Neretzat samintasun aundiyena orixen da; erderaz egin bear, nai ta nai-ez”...

1911g. Oñilako 31'an

Azkue'tar Dunixi jaunari.

...Eskartxo bat eskatzera natorkizu. Nere idazkunak “Gipuzkoara”n agertu ziranetik onuntz ez digute eman nai “Gipuzkoara”rik. Aitzaki arekin gebendu edo galerazi zuen Iru-

ñan bizi dan Aba Nagusiyak, esanez emengo Aba Lendakariyari ez utzitzeko irakurtzen “Gipuzkoafa”k. Ala ere, nondik edo andik, orain arte gureganatu dira gure ingi maitiak. Baño orain ezin zaizkigu sartu, eta nola edo ala sartzeko asmua artu det; neri galerazenik ez dit iñork egin-ta. Beraz ez bidali zenbaki bat bakafik ere etxe onetara; bidali era onetan zuzenduta”...

Bide neketsua berea, ta arantzez betea! Alaz guztiz ere, aberzaletasun bizia biotzean agintari zebilkiola, bere idazlanak beiñere aspertu gabe, jo ta su, egin zituan. *Euzkerologia* gaiaz egin zituanetan, Arana Goiri zuan irakasle nagusi; ta onen eta Astarloa'ren irozkaitzat gogoz erabili oi zituan Cejador ta Frauca'ren idaztiak. Badakigu orduko ta oraingo jakintsu edo sasi-jakintsu askok ez dituztela irakasle oyek aintzakotzat artzen. Oyen lepotik naiko pafa ta iseka egin dute. Pafa ta isekak ordea ez dira afazoyak! Ta Astarloa'ren ta aren kidekoen afazoyai, afazoyaz erantzun bear zaye. Ez degu esango Arana-Goiri'ren edo Cejador'en iritziak betetzen gaituztenik; baño ayen aurka esanak, askoz gutxiago. Batzuek duan bai ta bai diotela? Besteak duan ez ta ez. Dana dala, euskeraren etorkiaz olerkari batek jakin bear duan guztia, gureak bazekian; eta geyago ere bai.

Bi sailētara olerkiak biurtu ditugu: lenen-  
goan Otoitzak (geyenak aberkoyak) eta biga-  
fenean Abefi-oyuak bildu ditugu. Otoitzoler-  
kiak, bi edo iru ez beste guztiak, ereslari ba-  
tzuek eskatuta elizan abesteko egiñak dira,  
ereslari beroyek erdel-bertsoen neuria aufetik  
eman-ta. Samufak dira, biguñak, beroak, ere-  
xak; baño eřextasun au noizean bein geyegiz-  
koa deritzaigu. Bigafen saila bai dala berdin-  
gabea. Olerki auetan euskerak ezin esan alako  
indafa ta sakontasuna agertzen ditu. Itzak,  
ele-jakitunen iritziz, bere otsutsez gauzen iza-  
kera adierazi bear omen dute, eta len-lengo  
izkuntza ori besterik ez omen zan. Eřenderi  
Abaren olerkiak entzutean esan dezakegu an-  
emenka izakera berberaren abotsak entzuten  
ditugula.

Ara zugaitz-enbořak nolako otsa dagiten  
SABIN'en eriotzean:

“...enbor gogořak izan-ta  
dariz biyurtzen kafasiz kifisk-kafaska,  
miñaren miñez negarka.”

Ara “Lekobidenia”-eresian itsasoaren oru  
ta eraso-aldiak:

“Katazkan ařamaka ari dira uiñak,  
Kunkaka kuzkatutzen arkaitzaren oiñak:  
Laxter lertuko ondikoz! ditu gain-erpiñak  
Ur ařo oldarkořaren indar-alegiñak”.

Entzun ontza'ren abotsa:

“Gabian geunden biderik gabe galduak,  
ta ilundurikan tamalez gure goguak:

Ontzak onela ufubi-ulu zegigun,

*Jun gera gu, jun; guk egin dugu il ta jun”*

Benetan olerki auen egilea izadi-amaren magalean bizi zan, ta oni ezpañetatik zerion izkuntza ikasi zion. Bertso oyetan itz bakoitzak zer adierazten duan eztago galdetu bearik; abotsak berak naiko adierazten du.

Afitzekoa da gañera euzkotar lotiak esnatzeko zenbat oyu-mota egin dizkigun: or darabilzki txandaka paña ta negaña, itxaropena ta etsipena, leunkeriak eta isekak, ezta ta ozpiña, lafitasun-mařaskak eta gurenda-oyu alayak; alde guztietatik gogoa ta biotza astintzen eta kilikatzen ditu...

...Ta gure Abeñi amaren seme berezienetako au, Abeñi amaren abeslari zoli bikain au, oraindik ogei ta amabost urte bete gabe, “ludi zitalez nekatuta”, betiko ixildu bear! Muskaria’ko (Tudela’ko) lekaidetxean il zan, 1916’ean, garagañilaren 10’ean.

Abertzaleak esker onekoak badira, Eñenderi Aba zanaren oroipenak ayen artean luzaro iraungo du...

**ALDAYA.**

I'go. SAILA

—

## OTOITZAK



**Josu-Biyotzaren Abestiya.**

Gora ta gora—Biyotz Deuna,  
abestu beti—Gora Jauna!

### I

Josu'ren Biyotz—labe goriya  
denentzat dago—ager, ager;  
sartu kistafak—an sututzera,  
an efetzera—laster, laster.

### II

Jaunaren kaltez—jaso dirade  
etsai gaiztuak—bañendi'tik;  
Josuzaliak—aldeztu, Jauna,  
areriyuak—garaiturik.

### III

Suzko biyotza—gaía biziya  
efetzen zauden—Biyotz ene,  
piztu ludiya,—gartu gizonak,  
gogo guztiyak—suaz efe.

### IV

Eguzki eder—argi garbiya,  
sartu kistafan—biyotzetan;

gero obendiyak—eztira iraungo  
efu beltzaren—ilunpetan.

V

Atoz, ba, Jauna;—guazen, ba,denak;  
guazen, gizonak;—atoz, Josu:  
Sua nai duzu,—sua nai dugu;  
betor, ba, Jauna,—su eta su!

\* \* \*

Sua darien itz neurtu auek, zegokien ereslaria  
arkitu zuten. Orduan ereslari befi zan Donostiar Jo-  
se Antonio Abak ereskidetu zituan.

~ ~

**Oroitu zaitez!...**

*(Quia pulvis es, et in pulverem reverteris.  
Genes. III-19.)*

Bizitz igazkor onduan dago  
eriyotz izugarriya;  
beraren esku-atzaparetan  
utziko dugu biziya.

Aberats eta txiro guztiyak,  
argalak eta altsuak  
eriyotzaren guda ofetan  
izango dira betuak.

Ara gizon bat... ara bestia...  
ara amar... aneigarrena...  
ezin litezken zenbatu aiña,  
orok galdutzen bizmena.

Batzutan aúra txiki-txikiya,  
polit-polita , gaisua!  
eroritzen da obi-zulora  
utzita amaren besua.

Beste alditan gaztiak dira,  
gazte sendo ta zoliak,  
iltzen diranak iritxi gabe  
beren naikunde biziak.

Orain gizonak lagatzen ditu  
ezkon samura alargun,  
seme txikiyak ume-zurtz eta  
sendi guztiya betilun.

Ikusi gero agure zafak  
obi-albuan dardarez;  
etsi-zoriyan daude, dardaizak  
adierazten duenez.

Denak dijuaz, denak aguro  
bizitz ontatik bestera...  
Autsa ta loya ez izanikan  
beste gauzarik ez gera!

**Euskal-Esnalea**'ren «Esku-Egundiya»'n argital-  
dua. 1910.



## LOURDES

### Osterariyen Ereserkiya.

Aupa guztiyok,—jo aúera  
laxter-laxterka—Lourdes'era!

I

Eñi oroen—Ama da Miren,  
Euzkaditañen—Ama ere bai.  
Ta Ama dalako—Lourdes'en dago  
bere Euzkadi'ko—semien zai.

II

Miren garbiyak—Euzko-eñiyaz  
galde dagila—bai dirudi;  
oréxegatik—gaur bai dijua  
Ama ikertzera—gure Euzkadi.

III

Batzar zañetan—ziyon Euzkadi'k  
obenge zala—Miren beti;  
eta Neskutzak—goguan dauka  
oraindik agur—gozo ori.

IV

Masabiel'ko—arkaitz artean  
atera zaigu-ituñiya:  
Bertan euzkuak aseko degu  
gogo bañengo—egañiya.

V

Eskañak dira—Lourdes'en dagon  
ituñiyaren—ur gozuak.  
Ama Neskutza,—guretzat ere  
ideki, añen,—zure eskuak.

VI

Ez gera juango—gure etxetara  
iritxi gabe—zure eskañak:  
Laxter, ba, laxter—onetsi, Ama,  
Ama maitia,—euzkotañak.



### Lourdes'ko Ama'ri.

Amatxo laztan maite-maitia  
Euzkadi iltzera dijua,  
Min-miñez eta oñaze lañiz  
Ezin bizirik gaxua!  
Añen, ba, Miren, gure eriyafi  
Beira ta jafi sendua;  
Ez utzi, Ama, Abefiya il-ta  
Iltzen negañez euzkua!

Atsekabe ta malkoz beterik  
Gaizki dagoen guztiya,  
Ertunak eta landeñak datoz  
Zuganantz, Miren garbiya:  
Oñ Euzkadi elbañitua  
Zure auñian jañiya;  
Osatu, Ama, osatu, otoi,  
Euzkotañaren eñiya.

\* \* \*

Ereserki bi auen befi egileak berak emango digu: "Lizaña'tik Donosti'ra.

Arantzadi'tar Ingartzi Jauna'ri.

Ene biyotz-biyotzeko aberkidia: Desakezu noski onezkero: "Lekautiyari deus agintzia baño okeñagorik ez da; opaltzen dutena ez dute betetzen. Lurdes'erako abestiyak?" Ez kezkarik izan. Zer edo zer egin dut. Izkiyak bidaldu dizkiyot Donostiar Joseba Andoni Abari, eta artu onduan nere izkiyak berotuberotua idatzi dit ain pozez jartzen dela lanian eta abar. Eresalduko du, bada, ederki baño obeto, ereslari izugafi bikaña dalako. Orain arte bi izkienda bidali dizkiyot: Bat da ereserkiya edo ofela-

ko abestiyaren bat eraltzeko; bestia befiz Lurdes'era eramango dituzuten ertunaz, gaxoaz zer edo zer desana; au, da *Euzkadi minduaz, atsekabetuaz* itz egiten duana. Itz neurtuetan erderazko itzik ez dut jafi; bañon nere ustez denak efaz ulertuko dute. Egi-egiya dasazut Gipuzkoa'ko lekaretxetan jariko baginuzteke gipuzkoarari, zer edo zer egingo genuke euzkeraren alde, sayatuko giñake itzaldietan, abestiye-tan eta abar. Bañon bai dakizu *euzkotara* izatia zer dan. Lekauti españaræk Españan bizi dira, pantzeta-fak Pantzen, italiařak Italin; gipuzkoaræk non-nai Gipuzkoan ezpada. Amazazpi urte daramazkit Gipuzkoatik atayan, eta nai ta nayez Erdel-efiyan bizi bear... Donostiar Joseba Andoni Abak argitalzen dubenian bere lana, goraldtu alik aiña bere egintza, abertzaliak gogoz artu ditzaten Aba ofen abestiyak..."

(1911-III-2)

Donostian, Erviti'enean argitaldu ziran.



## Deun Pantzeska-Irugafen Batzaren Ereserkiya.

*Orok:*

Goi-gorantz gora—Asis'tar aundiya!  
Gora ta gora—gure Zaindariya!

*Apaldiyak:*

I

Bildur gořiyan daude gaiztuak,  
Dardar-dardařez etsayak,  
Ikusirikan beren auřian

Asistañaren anayak.  
Ekin gogorki etsai oyeri,  
Gudari pizkor ernayak,  
Garaitu arte, abestu arte  
Gurenda-abesti alayak.

## II

Beltzebukide bekotañari  
Dakizkiegun su-gañak:  
Su ta gar beti! etsi-lertzeko  
Areriyuen indañak.  
Bekuak gorantz azpiratuta,  
Goituta gorantz goitañak,  
agur au ixuri zitzayon:  
Mendi gañetan egin ditzagun  
Guda-gurenda didañak.

## III

Asistar Abak gure ikufiña  
Daduka gorantz jasua;  
Bere eskuetan ikufin deuna  
Eder-ederki dijua.  
Oñen atzetik jañai bildurge,  
Asistar anai zintzua,  
Berialaxen abestutzeko  
Gurenda! pozez poztua.

\* \* \*

Oraingo aldian ere egilea degu bere asmoen be-  
fiemale. 1911-ko Ufia'ren 10-ean Arantzadi'tar In-  
gartzi'ri zuzendu zion idazki batetik, dafain zatitxo  
au berezitzen degu: "Irugafen Batza'rentzat egin di-  
zutet ereserki bat. Uste dut Donostiyan abestuko du-  
zutela: "Goi gorantz gora—Prantzisko aundiya".  
Beti egin bear dezutena orixen da; eskatu euskeraz

egiteko txadongi (funciones de Iglesia) guztiyak.

Emen ai naiz lanian. Oraindano aberzalerik ez zelako ez nuen inor ezagutzen, ezta're gogorik izaten inorekin itz egiteko, Irujo-tarakin ez baldin bazan. Orain aberzale mordoxka batzuk ezagutzen ditut eta oyekin askotan aritzen naiz. Baditut aberzale langile ta zintzuak. Auferantz goaz. —Baxterka—baxterka ta mearka-mearka “*Gipuzkoara*” ta “*Bizkaitara*” ta “*Napartara*” nereganatzen dira. “*Gipuzkoara*” oso poliki dator...

Agur, ene Ingartzi biyotzekua.



### Gurtza

(Salve, Regina!)

Agur, Bakalduna,  
ona baño onago,  
zuri beira dago  
beti Goiko Jauna.

Amarik maitena,  
xamur eta bera,  
zu guretzat zera  
itxaron bizpena.

Otoi-dei-arenak  
ari gera eiten,  
negarez itotzen  
ludiyen gaudenak.

Beraz, Ama Miren,  
Miren Zaindariya,

izan efukiya  
guztiyontzat, aŕen.

Ta ilko geranian  
ezaŕi zaiguzu  
zure seme Josu  
gentzatuta, auŕian.

Agur, Ama xamur  
efukitsu ori!  
Agur, Miren, beti,  
agur, agur, agur!

\* \* \*

Ezin eraman zuan gure olerkariak Euskal-Eŕi-ko elizetan otoitzak erderaz egiteko zegoan eta dagoan leia. Birau-mota zeritzayon Jaungoikoarekin itz-egiterakoan Berak guri emandako izkuntza ezetsi ta beste batera jotzea. Ara nolako espa agertzen dion “Gipuzkoara”ren zuzendariari: “Noiz asiko zerate aŕortutzen *Gipuzkoara*n etofi zaigula arua erdera baztertzeke, ateratzeko, jaurtitzeke irakastoretatik, txadonetatik eta alde guztietatik? Bai dakit iŕnoiz edo iŕnoiz zerbait esan dela. Baŕon oraindaŕno esana ez da asetzeko aiŕa. Geyago, askoz geyago esan bear da. Nik zuk bezelako burua banuke beti erdeŕzaliak lertzen ariko nintzeke. Donostiyan ainbeste abertzaliak izan ta, zergatik erabakitzen ez dezute, goguak batuaz, ez sartzeko erderaz egiten duten txadonetan? Denak goraltzen dute poloniatarŕen abertzaletasuna, ukatzen diralako edo nai ez dutelako alemaneraz otoitzak egin, poloneraz baŕo Zergatik ez goraldtu euzkotaraŕen abertzaletasuna, ori bera euzkeraren alde egiten badute? Ondaraŕbiyan esan zidaten orain bi urte dirala zu ango leka-

retxetik atera ziñala Miren-gurtza edo eřosariyoa erderaz asi ta beriala; eta ori esan zidaten zure aberzaletasuna abegi onaz arturik. Ori bera gertatu liteke abertzale guztiyakin Donostiyan eta beste euzkal-errietan...

(1911-III-2)



### **Arantzazuko Miren Garbiyari.**

Ora or Arantzatzu  
ora Ama garbiya;  
Ora begiz begira  
gure Zaindariya.

#### **I**

Guda gogora  
alde guztitik  
ondatu nairik  
gure eriya...  
Begira bertan,  
Ama onena,  
Euzkadi dena  
eroriya!

#### **II**

Ipar aldetik  
otzak jotzen du  
ta usteltzen gaitu  
ego txararak...  
Miren garbiya,  
aldendu min-gaitz,

erauntsi-ekaitz  
ego-iparāk.

### III

Neke arantzez  
bete-betia  
euzko-erria  
da arantzatzu...  
Arantzatzu'ra,  
Amatxo maite  
kutun orixe,  
betorkigu.

### IV

Ama eldurta  
arantz-sasira  
loratzen dira  
arantz denak...  
Erdu, Neskutza,  
erri onera  
guri kentzera  
gaitz-obenak.

### V

Indarrez degu  
guk aintzatuko  
Arantzatzuko  
Miren ori:  
Aupa luditik  
ortze-ondora!  
Gora ta gora  
beti-beti!!

### **Miren efu-gabia.**

Miren efu-gabia,  
neskutz garbi-garbiya,  
mendi-elur zuriya  
baño zuriyago:  
edertasun orixen  
aintzatzeko ludiyan  
iñon ere bear dan  
aintzarik eztago.

Noizpait baldin badabil  
ilunditan ontziya,  
Miren da itxas-argiya  
itxaso barenen.  
Izar-argitasuna  
goguak ilunbian  
gabaz dabilzanean  
orixen da Miren.

Miren Ama kutuna,  
alaba ta semiak  
nekiaren nekiak  
ei dituzte ugari.  
Naigabe-neke-miñak,  
gogo-biyotzen zama  
nori agertu, Ama,  
baizikan Amari?

Amarik xamur eta  
neskutz ederena,  
ikusi miñ-obena  
gure biyotzetan.  
Ikusi, bai, ta ondu,  
ondu gure goguak;



zaindu seme gaxuak  
guda gogofetan.

Olerki au eta ondorengoa egileak Miren-alabei  
opalduak daude.



### Agur!

Agur, Ama maitia,—enetxo gaxua,  
zu bakarrik utzita—urutirantz nua.

Gaurtik gerorantz utzik—izango zerade,  
zure magal-onduan—alabarik gabe!

Ari beizkit Amaren—begiyak begira,  
beriz biurtu arte—gaur nagon tokira.

Ludi bide guztiyak—dakuskit loituak;  
zikinguko ote naute—obenen eruak?

Etsayak bai-dabiltza—ziñez nere bila,  
zauriturik uzteko—ni bidian ila.

Ni gaiztotu-urunian—nabila, Ama Miren,  
ken zaidazu gogua—gaitzak jo baño len.

Eldu nai dut nik ere—deunakin batera  
zure magal-magalan—poz pozez iltzera.

Miren-ondotik urun—bearak narama;  
beriz etofi arte—agur, agur, Ama!!

**Ama Tamaltsua.**

(Stabat Mater Dolorosa)

Ama bai'zan negartsua  
gurutz-oñan iltzetua.  
Semia zegonian.

Bera'ren gogo gaxua  
gaitz-naigabez ilundua  
aiztuak zaurtu zuan.

Oi! zan itun, zan atsege  
gurutz-oñan Josu Seme  
bakařaren Ama utza.

Alege ta ala zan Miren  
zekusala Semiaren  
neke ta min zorotza.

Negar, ziñez, nork ez leike  
Josu-Ama balekuske  
min ofen aundiagaz?

Nork ez izan malko-leuna  
ikusita Ama kutuna  
Semiaren intziraz?

Gizaiden obenakatik  
daku Josu oñazturik,  
daku zigorpetua.

Daku Josu maite-maite  
alak iltzen, utzi arte  
azkenikan gogua.

Iya, Amatxo maitagañi,  
irardazu miña neri  
negar dagidan zukin.

Josu! nere biyotzari  
Kisto maitiaz pozkañi  
beretzat izan nadin.

Añen, Ama, iltzetuaren  
zauriyak biyotz-bafenen  
irafi zaizkidatzu.

Nigatik il zaizun Seme  
zaurtuaren miñak ere  
neronekin banatu.

Zukin negar nik samurki  
ta minkidatu Josu'ri  
egizu bizi-arte.

Gurutzpian zukin iraun  
ta adiyetan izan lagun  
egunero nai nuke.

Neskutzik bikañen ori,  
malkuak ixurirazi  
gozotu zaizkidatzu.

Kisto-eyotzaren seña,  
nekauste-zauri laguna,  
Ama, egin nazazu,

Nazazu zaurivez zaurtu;  
baru dena, Kisto Josu,  
gurutz-oñazez ase.

Epaikundian ni ziñez  
aldeztu, Ama, sukárez  
enadintzat ni ere.

Il zoriyan, Kisto Jauna,  
emadazu goi-zoruna  
Miren Ama'ren bidez.

Lurá utzita beriala  
gogo auxen dijoala  
donokira, eskañez.

Olaxen.

Olerkariaren negar-zotin auek etziran gezuñez-koak; bafenbafendik zetorzkion. Bere idazki batean onela dirakurgu: "*Stabat Mater Dolorosa*" euzkeraldu dut; bañon ori bai nai nukela ederki ta txukunki egitia, gure Ama Neskutza mañe-mañiaren aintzarako. Beraz ez dizut orain bidaliko: ofaztu ta garbituta datoñen astian edo geroxiago bidaliko dut *Gipuzkoara*'rentzat. Azketsi onenbeste itzkeri. Otoi egin zagun, otoi berua Goikuari onenbeste gaitz kentzeko lenbaitlen Euzkadi'tik. Abek lanak! Biyotz guztiya aspalditik uratua, lertua edo daukat, eta nonnai eta edonoiz ene Aberñiyaren gaxokeri besterik ez dut ikusten...

Agur, agur...



### Bi Egubefi-Abesti.

#### I

Osto ta abar artian—geldi, goitafak;  
Aurá lotan dago ta—ez jo abafak.

Gotzon egatiyak—bildu egalak,  
poliki-poliki,—gotzon goitarak.  
Otsik egin gabe,—gotzon dan-danak:  
Aurá lotan dago ta—ez jo abarak.

Neguan atsedeen—bai du beara;  
ez esnatu Josu—ega-egaka.  
Inolaz ikutu—ez ba, goitarak:  
Aurá lotan dago ta—ez jo abarak.

## II

Malko samin oyek—txukatu, Josu;  
Negaréz bazaude,— nolaz abestu?

Miren-magalian—ixildu, Josu;  
Ama daukazu ta—ixil, enetxu.  
Begi-betsein oyek—argi-argitu;  
Negaréz bazaude— nolaz abestu?

Jayo zeralako—Betelenan gaur  
goiko geznariyak—poztu dituzu;  
Ez orain begiak—malkoz ilundu,  
Negaréz bazaude,— nolaz abestu?

Ikusi Lope de Vega'ren “Pues andáis en las  
palmas” ta “No lloréis, mis ojos”. Olerkitxo auek  
euskeraz ematean, gure olerkaria Donosti'ko Jose-  
ba Andoni Aba'ren esanera zetoren. Onek ereski-  
detu-ta Erviti'enean argitakdu ziran.



### **Kistoren gogua.**

Kistoren gogua; ni donetu.  
Kistoren Soña, ni gaizkatu.

Urtzi-Odola, ase nazazu.  
Gurutz-Nekia, ni indartu.  
Kistoren Sayets-ura, ni garbitu.  
Josu on-ona, neri entzun.  
Zure zaurietan yagon nazazu.  
Ta ez utzi zuretik aldendutzen.  
Etsai gaiztuatzaz ni aldeztu.  
Nere eriyotzian dei nazazu;  
ta agindu ni zugandutzeko,  
Deunakin goreztu zaitzadan.  
Beti, beti, beti ta betirako.

Olantxe.

Erderazko "Alma de Cristo" otoitz ezaguna.



### **Josu maitiari.**

Mendi-gañetan elurá jaíriya  
elur agitz otza:

bañon urtzera dator Eguzkiya,  
eltzen da Biyotza.

Abestu beti abesti gartsua  
Josu maitiari;

ereserki bat bero ta sutsua  
dagiyo gun safi.

Josu ni-bila dabilen unetik  
Josu-zale nabil :

Bizi izatekoz maitia gaberik  
nadila bertan il.

Baſen guztiya zugatik, Jaun ori,  
bero-bero daukat:

Zu-zuretzat ni, betirako beti;  
ta Zu, ni-neretzat!

Itz neurtu auek, ondo neurtuak al daude? Egi-  
leak berak etzuan oſelakorik bete-betea sinisten.  
Idazki batean dionez, amaikana izkin dituzten bertso  
luze oyek bina zati dituzte: lenengo zatian bost iz-  
kin irakurri bear dira; bestean, sei. “Bildur naiz,  
dio, belarriak zerbait erdeldundu ote zaizkidan. Dana  
dala, neurri ori eman didazutenezkero...”



### **Atoz, Jaun ori.**

Atoz, Jaun ori, zu urundutzia  
biyotzarentzat gaitz zorotza;

atoz, Jaun ori, ez pa'didazu  
nekez ondatu nai biyotza.

Josu kenduta, Jauna gaberik  
nere gogua gaizki dago:

Atoz, Jaun ori, bestela atsegez  
ezin bizi-ta ill nayago.

Niganantz, Josu, nerekin bertan  
idetutzera atoz, aren;

Zurekin beti bat izan nadin  
beti-betiko, onelaxen.

Elduayen'dar Toma Abak ereskidetuta "*Zeruko  
Argia*"n argitaldua. (1923-ko Agoŕan).



### **Josu Biyotzaren Abestiyak.**

#### I

Neke-neke gabilta—guztiyok ludiyan;  
Biyotzian sar gaitez—atseden gaitian.

Erauntsiya ikusita  
etori-ta negua,  
enara bai-dijua  
egudara igesi.  
Otz ta gaitzez beterik  
luditik egatua  
igotzen da gogua  
Biyotzerantz safi.

Eiztariyak jo eta  
odoldua guztiya  
uxu txuri garbiya  
arkaitz artera jun.  
Ara, Josu-Biyotza,  
uxu-kabi guriya;  
arantz igo obendiya  
etsaitatik urun.

Ufuma te zemaka  
ekaitza datoŕela,



itxaskiyak daudela  
gu-gañian, Josu!  
Jauna, Jauna, guganontz  
el-zaitez beriela;  
atoz, a'fen! bestela  
galduak gaituzu.

## II

Ludiyá dago—epel, otza;  
erain zayozu—su, Biyotza.

Biyotz maitia, zer nai dezu  
ez-pada bota—su eta su?  
Maite Biyotza—guk nai degu;  
bota sukafá—laxter, Josu.

Gure artian—da negua,  
utzitzen dena—izoztua:  
Biyotz gugatik—sukartua,  
afen, bidali—zure sua.

Josu—Biyotza-maite maite,  
Biyotz-bafengo—sutan ere:  
labe ortako—gafik gabe  
ez iñoiz bizi—iñolare.

## III

Zuganantz guaz—Josu, beti  
ideki bada—Biyotz ori.

Maldak betiak—osin, otez:  
bidetan lafa—besterik ez:  
bañon gu gorantz—bide-bidez  
il arteraño—Kistoren lez.

Ekin-ekinka—itxaskiyak  
itxasperatu—nai ontziyak:  
bañon ez izan—gu nagiyak,  
ta aurera beti—gudariyak.

Ora mendiko—gain galura;  
itxas-ertzian—ora lura.  
Gaitz-mota dena—jun omen da,  
ta iritxi degu—guk gurenda.

#### IV

Atoz guganontz—gure Josu;  
eta gugandik—ez urundu.

Laxter aguro—jetxi bedi  
donoki goitik—Biyotz ori:  
Ez gaitzazula—Josu, guri  
bakañik, añen!—iñoiz utzi.

Ene Biyotza—Biyotz ene,  
maite nai eta—ezin maite.  
Nolaz ordian—Josu gabe  
gure gogua—sutan ere?

Goi oyetatik—ludiratu;  
el-zaitez, otoi,—gure Josu,  
eta gogotan—sartu, sartu;  
gu Zu izateko,—Zu beriz gu.

#### V

Obenak ideki du—Kistoren albua;  
zauri ortatik orain—Biyotzerantz nua.

Etzan aski Josukisto  
ondaturik utzitzia,

makil-zigorkaz josia  
ta arantzez estundua.  
Bear ziran erorpenak,  
bear ere gurutzia,  
ta ilezkeroz izatia  
oraindik zauritua.

Gurutz artan azkenikan  
il zan alaz Goikua;  
soña zeukan ubeldua  
ta, berantz eroria.  
Alaz ere gudariyak  
zaurtutzen diyo albua,  
bide Biyotzerakua  
zabalduaz guztiya.

Irain izugarriya zan  
obenak egin zuena;  
ebaki sayetz deunena  
gorotasun zorotzez.  
Bañon, ai! zein beraxtasun  
beraxtua Josurena,  
egin bertan azkespena  
ainbat gaitzen ordañez!

## VI

Onesten degu,—gure Jauna,  
zure goi-beko—jauntasuna.

Josuren aginbian  
dago beko ludiya;  
Ortze guzti guztiya  
Jaunak azpiyan du.  
Gaitzagatik uruti

dabil nere gogua  
zuretik aldendua,  
ene Kisto Josu.

Egiliaiak nai dun lez  
ibayak itxasora,  
odei lañuak gora  
dabiltz oro zuzen:  
Bakar-bakarik gerok,  
obendi txar-gaiztuak  
bide debekatuak  
ditugu bilatzen.

Ikusten da Goikua  
mendi, oyan ta baso,  
naiz legor naiz itxaso  
biyotz ta azalian.  
Gaitzerik zorotzena!  
Jaberik ez da arkitzen  
obendi gaiztuaren  
biyotz-bařenian.

## VII

Izan eskařen—itufiya  
Beti neretzat—idekiya.

Bařen guztiya—sukartua  
min-miñez daukat—nik gogua.  
Zatozkit, Josu,—len baño len  
ni ureztutzera—atoz, ařen.

Leyaka gaitza—nairik nabil  
eta naigabez—iya naiz il.  
Itufi deuna—Kisto Josu,  
ni sendatzeko—, non zaude zu?

Girñak garëtan—jartzen gaitu,  
ta ur gabe gaude—efetzen gu:  
Biyotz ortatik—ura ixuri;  
bidali ura—laxter guri.

### VIII

Atoz aguro,—Jaun onena,  
Zu zera gure—onespena.

Biyotz gartsua,—lanbo suzkua—dariyozu:  
Bota txingar bat—bederik gutzat,—ta izeki gu.

Elur otz otza,—orma ta izotza—nun-nai dira:  
Berotasuna—ekartzu, Jauna,— ai!ludira.

Sukar biziya,—euzki izekiya,—Biyotz ori:  
ekafi sua,—kendu negua—safi, safi.

### IX

Jaso gizon orok—goguak goira,  
Josu dagolako—an gu begira.

Gora jotzen dute  
laño-ke-lurñak;  
ortzerantz ariñak  
igitutzen dira:  
Zuritzeko obenak  
bijuaz lenbaitlen  
Josu sutuaren.  
Biyotz-Eguzkira.

Gaba beltza degu  
guk beti ludiyan,  
ta arats guz-guztiyan

ilun da gogua.  
Aupa Josugana  
aguro baño len!  
an dago irargitzen  
Argi betikua.

X

Gure Biyotz otzana  
Biyotz maitagafiya,  
goi-goitikan gugana  
el-zaitez lenbailen.

Baigabiltza ludiyan  
naigabez ilunduak,  
estuntzaz estutuak  
negarez itotzen.  
Noiz arte egongo gera  
ludi ontan, noiz arte?  
Jauna, zu ikusi gabe  
noiz arte izan emen?

Malkoz gizon gaxuak  
dauzka bere begiyak  
beti busti-bustiyak  
biyotz nekiafen.  
Biyotzak arintzera  
atoz, Biyotz deun ori;  
bidali iguzu guri  
poza il ez gaitezen.

Josu-Biotz-eresi-xorta au Alfonso Ugarte eresla-riarentzat emana da. Erfenderi Abak, erderazko itz neurtuai orpoz-orpo jaraituaz, bereak antolatu zituan. Or'engatik eresi geienak bixi-bixiak atera bazaizkio ere, batenbat moteltxoagoa derfitzaigu.

Baño bere olerkirik edereña, beroena, xamuña, ondoren dijoan au da. Il urean, azken-arnasetan zegoala, leyo bat idiki-erazi ta zerurontz begira luzaro egon-da, lagun bati deitu zion, eta esatera zijoana ingian jafi zezala eskatu-ta biotz-ezpañetatik azken-agur au ixuri zitzayon:



### **Enara gaxua!!**

Orá, Josu on-ona,  
enara gaxua,  
ludi ontan miñ-gaitzez  
guztiz ondatua.

Orain ega-egaka  
zukanantz dijua:  
ez duzu edatuko  
zuk zure besua,  
ene Josu maitia,  
ene Jaungoikua?

Enara dardaiz gabe  
dago sendotua,  
zu zeralakoz, Urtzi,  
oso ufikaltsua:  
Baño ludi zitalez  
oi! zein nekatua!  
Igesi duanari  
ukatu lekua?  
Ideki, Jauna, atiak,  
ideki leyua.

Enarak ixilka du  
bete bere egua;  
begira noiz datofen  
zerofek deitua,  
ta orduan, oi! eman  
laztan ta muxua,  
ta donoki bafenan  
sari betikua.  
ENARA GAXUA!!





II'garfen SAILA

—  
ABERÍ-OYUAK  
—

Sabin!

Ezautzen dezu, Sabin! etortzen oi dana  
urtero zintzo malkoz urtua zugana,  
malkoz urtua zugana?

Zu il ziñanian, ura nere miñ-zofofotza!  
Geroztik daukat purukatuta biyotza,  
purukatuta biyotza.

Poza aldendurik, eldurik eruz negara  
negara da nik dagikedan gauz bakara,  
dagikedan gauz bakara.

Zerori ziñan, zeror-zerori, Arana,  
ene biyotzeko Aba maite ta laztana,  
Aba maite ta laztana.

Zuk bai'dakizu Jaunan onduan egiya:  
nik zure alde z gogoz ein duten guztiya,  
gogoz ein duten guztiya.

Bai dakizu, bai il-urunion ziñala  
eriyotzeske ziñez ibili nintzala,  
ziñez ibili nintzala.

Txadonan auzpez otoi ein nion Urtziri:  
“Bertan ni il nadin, bañon iñolaz ez Goiri,  
bañon iñolaz ez Goiri”.

Aberiyak zer? euzkerak ere zer egin,  
gaxo-gaxuak galtzen badute gaur Sabin?  
galtzen badute gaur Sabin?

Entzuten ditut gure Euzkadi'ren mafuak;  
ditut aditzen euzko guztiyen uluak,  
euzko guztiyen uluak.

Beltzaren-beltzaz goibeldu zaigu ortzia  
datoñelarik gau-arats izugafia  
batere argirik gabia!

Bira-biraka eltzen zaizkigu odoyak;  
ortotsak ditu dardaizten biak ta goyak:  
Guztiyok egin otoyak!

Auxen nekia! auxen bañengo bildura!  
Tximist-juzturi, aize, ur eta elufa,  
nasturik ortze ta luña...

Menditik datoz maraska-digar uzuak;  
itxas-aldeetik zemai ankeren zantzuak,  
aramak eta oyuak.

Zugaitz-enborak, enbor gogorak izan-ta,  
dariz biyurtzen karasiz kirisk-karaska,  
miñaren-miñaz negarka.

Ortze zabalán iurtzuriyak oruka  
beko gauz orok nasturik elkar-buruka;  
Zer ote Euzkadi'k daduka?

Ainbeste intzira, bufunba, aunka ta ofobi  
nun-nai entzunik dardar-ikaraz nago ni:  
Zer degu, Goiko Jaun ori?

Aizetzar ofek botatzen ditu zugaitzak;  
Jaun indartsua! oñazkafezko ekaitzak  
iraultzen ditu arkaitzak.

Au gau afatsa, Urtzi Jaungoiko sendua,  
etzaigu ixiltzen erasuaren txistua,  
ezta're itxaso-marua!

Euzkadik miña, oñaze dauka zofotza,  
gogo-bafenen sartu diyote aiotza,  
erdibiturik biyotza...

... ..

Iltzen ari da Erkaba Sabin, ai Ama!  
Sabin maitia erio beltzak darama,  
erio beltzak darama.

Odei baldañak, laño narásak ere efuz  
orgatik datoz beltz-ilungiro aokuz  
beltz-ilungiro aokuz.

Erauntsi-otsak, ozantza zakar ilunak  
ez dira baizik negar-elito itunak,  
negar-elito itunak.

Iletariyak alde guztian ditugu  
Goiri dalako azkenez; ene! iloztu,  
azkenez, ene! iloztu.

Zardain-enboña, zartaturikan ler zadiz,

eta Aba ilaŕen negar egizu kaŕasiz,  
negar egizu kaŕasiz!

Euzko-mendiyak, estali lañoŕ zaitetze,  
alarguna lez ez agertzeko beiñere,  
ez agertzeko beiñere.

Lufikaratu, Ama Euzkadi samiña,  
Aba ilezkero bertan bota azken-zotiña,  
bota, bota azken zotiña.

... ..

Arana, Arana, il omen zera betiko!  
nola naiz orain, Arana, Arana biziko?  
Arana, Arana, biziko?

Auxen nekia! auxen baŕengo negaŕa!  
negaŕa da nik dagikedan gauz bakaŕa,  
dagikedan gauz bakaŕa...

Ileta-eresi berdin-gabe au Erienderiko Batzokiari  
opaldua da. Eresi onen egilea etzan noski olerkari  
makala; erpiñerpiñeraño igo zala deritzaigu. Esakera  
batzuen azalpena (egileak berak emana) azkenean ja-  
fiko degu.



## **N e g a r !**

Aba gurgari maite maitea Españ'erian il zaigu;  
ludi onetan gizagaxuak azken-arnasa egin du,  
azken-arnasa egin du.

Galpen aundiya onegatikan Euzkadi dago betilun,  
eta gaixua negar ta negar ez da ixiliko gau t'egun,  
ez da ixiliko gau t'egun.

Laño beltz-beltzaz estali dira, samintasunan azalgai,  
Euzko-Erriko mendiyak eta muru-aranak ere bai,  
muru-aranak ere bai.

Ortze ederaren goibeltasunak ta itxasuaren maruak  
dasate zurtze-aruan gaudela orain euzkuak,  
gaudela orain euzkuak.

Aba Ibero'tar adimenaren argiya bezin argiya  
nun dakuskegu, nun darkikegu?... Zoritxarrezko zo-  
[riya,  
Zoritxarrezko zoriya!

Aberiyantzat il da gizona jakintsua ta ernia,  
gizon aundiya, gizon azkara, gizon bildurik gabia,  
gizon bildurik gabia!

Euzkerarentzat ez du bizmenik langile zintzo-zin-  
[tzuak  
ez du ikasiko geyo euzkerik... Il dira Abaren asmuak!  
Il dira Abaren asmuak!

Auxe bai dela atsekabia, auxe bai dela nekia;  
Aberitara, dagizu negar; negar, euzkera-zalia,  
negar, euzkera-zalia!

Itzali dira Goizpargiñeren biyotz gogoko su-garrik?  
nork dagizake orain gu-aldez ark bezelako indarrik?  
ark bezelako indarrik?

Euzkera piztu, Euzkadi jaso, etsai gaiztuak eratsi:  
Ene Ibero'tar zure asmua, nola zu gabe iritsi?  
nola zu gabe iritsi?

Uda edera kendu ta betor udazken gaitu-gaitua ;  
alargun-jantziz jantzi dedilen Euzkadi gaixo-gaixua,  
Euzkadi gaixo-gaixua !

Ibero'ko Goizpargile (Evangelista) Aba Buruñurduna, erbestean, Hajar'ko buruñurdun-lekaidetxean, Teruel'ko provintzian il zan (1909-IX-1). Bera ta berak ereindako azia lertu, zapaldu, ito naiez, arerio zitalak (pizti-uzu-talde antzo) goitik eta betik, ezkefetik eta eskubitik eraso zioten, atzerifa bota zuten, ixilerazi zuten, naigabez il zuten. Ta oraindik bere ilobitik altxatuko ote zan bildufez zeuden... Lagatzak badaki nor nolakoa dan ! Ibero Aba, il baño amar bat urtez lenago, Lekarotzen, olerkariaren irakaslea izan zan : *Aritmética* ta *Algebra* irakatsi zizkion. *Logaritmo*'ak edo *ecuacio*'ak zirala ta e'tzirala naiko ateleka ematen zion. Baño alperik. Olerkariari Lope de Vega ta Villegas, Cortázar ta Queipo baño atsegiñago zitzaizkion. Gai ontaz ezin batera etofirikaslea ta irakaslea : aberzaletasunak gero batu zituan.



### J u a n z a n !

Juan zan Sabin Arana,  
juan zan Jaunarengana.  
Ene Abefi maite, kutun, biyotzekua,  
orain Erkaba gabe, zein zori gaiztua !  
zein zori gaiztua !

Ostuak erori dira  
luferrantz biraka bira :  
Abefi kutun ene, galdurik euzkera,

zer izango gera?

Osto guztiyak orbeldu...

Zugaitz-adar<sup>ak</sup> igartu...

Orbel eta zugaitzak sargoriz il dira:

Euzkadi *ego-gaitzak* darama obira,  
darama obira.

Egileak dio eresi au abestu leikela "Argizariak zelutik" lez. Ikusi doñu au Bilbao'ko Euzko Gaste-diyak argitalduko "Euzkel-Abesti" bigafen txortean, 4 gafen ingoskian.



### **Eguzkiyik gabe!**

Mendi atzerantz jun da—eguzki garbiya;  
Eguzki eder ori,—Urtzik izekiya  
izan da beti euzko—guztiyen argiya:  
Argi gaberik orain— a zer ilundiya!

Atsekabe gafatz au— zein negargafiya!  
estutasun beltz auxen— zein estu-lafiya!  
Mendi-aruntzekeroz—asaben euzkiya,  
mendi-onuntz abetan— il da gure Efiya!

Il danetik Aberi—maite ta gaxua,  
eguzkiya itzalirik—etofi da gaua:  
Gau beltz ori omen da—euzko soñekua;  
bai ta gure negafa—ontzaren ulua.

Zer ulu, zer urubi!— gaua nolakua!  
Eguzkiyik gabe ta—Euzkadi iloztua!  
Negar egizu, negar,—umezurtz euzkua,  
jaurtiki arteraño—azkengo malkua!

### Afats-Abestiya.

Negar egin, negar beti—il dalako Euzkiya;  
ene gogo, biyotz ene,—eztafi ta begiya.

Miñgaraztu eñai orok—mindu bañen guztiya,  
ilunduta dagolako—ilunpian Eñiya.

Ilunpeko abestiya,—abesti nekezkoa,  
orain ontan abesten dut—ilundurik gogua:  
eguneko bañen poza,—poz-argiz argitua,  
nere biyotz biyotzetik—urutirantz dijua.

Txoriyen txorotxiyuak—orok ixildu dira;  
zozo beltz txistulariya—jun da bere sasira:  
orain bakar-bakarñikan—sartalderantz begira  
abesti zoliyen ordez—dagit negar-intzira.

Azkatasun eguzkiya—jun zaigu Euzkaditik,  
berebiziko gaitz miñak—gabakin etorifik.  
Ilargirik ez ortzian,—ezta're izar-izpirik,  
ilunpetan ilundua—Aberñiya danetik.

Aramaka dabiltz orok—artzak eta otsuak,  
idukiten izututa—Euzkadiko euzkuak:  
Abestu ezin ba pozki,—euzko gaxo-gaxuak,  
orlako estutasunen—naigabe, min ta izuak.

Negar egin, negar beti—jun danetik Euzkiya,  
ene gogo, biyotz ene,—eztafi ta begiya:  
puñukatu eñai orok,—lertu bañen guztiya,  
nekatuta dagolako,—ondatua Aberñiya.



### Euzkeraren Eriotza.

Nik maite nuen kutuna,  
nere atsegin-zoruna,  
ibili bai'ta, bai egon,



ez dut arkitzen iñ-iñon:  
Bilaka beti bai nabil,  
baña da agiyan nunbait il.

Ibai ertzetan galdetzen  
dut iya ote dan emen:  
Batzutan dagit ojua,  
bestetan, beriz, ulua;  
“Maitia, diyot, nun abil?”,  
baña da noski nunbait il.

Mendi-bañenen sarturik,  
“nun ezagokek?” dasat nik;  
eta dantzut artz-añama,  
esaten neri: “Azama!”:  
Otsuak ere dasa: “ua!”...  
Agiyan il da gaxua.

Baso-oyaneko zugaitzak,  
dago zardañak ta aritzak,  
enbor-ondotan enetxu  
ez al zaizute jarkitu?  
ez al dek jañi eunoro  
itzal-azpiyan naroro?

Ibar-egiak, añuak,  
afobitako zuluak,  
arana, nuru-mendiyak,  
nunbait aldeko tokiyak!  
ez al dizkik laztan-edefak  
ikertu zuen baztefak?

Juale ozen, zoliya,  
txadon-buruan jañiya,  
zergatik ago geldirik?

zergatik ixil-ixilik?  
Il ba'da jo zak ileta  
min ta negarez beteta.

Juale txadon-gaingua,  
gaituen lagun zintzua,  
il dek! Ala're ago ixil;  
doibazkatuta zaiguk il;  
il gure euzkera gaxua,  
euzkera garbi txairua.

Areriyuak edonun  
parézka dariz gau t'egun.  
Zeyetan etsai zorotzak;  
txadonan ere arotzak.  
Bakar-bakarik nik negar,  
Euzkera, igatik ein bear!

Azkeneko apaldia, egileak dionez, obe izango da ixilik uztea olerki au giza talde aurrean esaten bada. Eliz-gizonen bati tximurtxi egingo ote zion bildurez noski!... Abestu nai dutenentzat "*Lili eder bat*"-en doñua aipatzen digu. Nola ordea olerki itunari doñu alaia erantsi? ez ote du batak bestea ezeztatuko? Nere ustez nasketa polita egiten dute. Ikusi "*Euzkel-Abestiyak*" Bilbao'ko Euzko-Gaztediyak argitalduak, 2'gafen txorta, 6'gafen ingosk. ta "*Euzkel-Eresiak*", Donostiar Joseba Andoni Abak ereskidetuak, Iruñan, Arila-enean argitalduak, I'go txorta, 11'g. ingosk.

---

### Ufetzindofa.

Ufetzindor txoriya—ixilduta dago;  
ez du txiyo ederik—egingo geyago:  
Udazken ta negua—bai datortzelako  
bertan bai dijua  
igeska gaxua.

Otza Euzkadin eta—gau afats ilunak;  
bai-ta gaitzez galdurik—eri euzkeldunak...  
Ixildu bear txiyo—zoli ta legunak;  
ezin ari beraz  
txiyotan inolaz.

Ayenaten ez ba'da—negu beltz gogofa  
ez da inoiz biyurtuko—gure ufetzindofa:  
Ufutirantz jun eta—urutin ilko da;  
ilko da atzerian  
naigabe min-pian.

### Uxua.

Uxo arin ta zoliya  
aratz, txairu ta txuriya,  
oso-guztiz polit-edefa aiz i, ene uxu guriya:  
Orelaz ere ire atzetik zetorkik, oi! eiztariya.

Uxo txukuna, of-ofa,  
ofa eiztari gogofa:  
Ire bilaka zebilek gizon zamo, anker ta dolora;  
i jazarka, i eskontzeko, egazti ernai pizkofa.

Igesi egik, uxua;  
azama laxter; bertan ua.  
Iñoiz ez, ala! azarorekan, ene egazti gaxua;  
ta adikan beti ortzian azke, ludiyan garbi-txaua.



### **K a r n a b a .**

Bai datorkik egaka mirua  
ai karnabatxua!  
ortxen dek areriyua,

or etsai gaiztua:  
Erpez au, biyotzkua,  
utziko ufatua!

Atsekabe-negafez itua  
da nere gogua,  
ikusita Ama gaxua,

Euzkera enetxua,  
erderakin bufukan  
erderapetua.



### **A b e f i - M i ñ a .**

Zoriona zu goi-eguzkiya  
Euzkadi dakuszulako;  
ezdakusgunak ordia...  
baigerala zorigaizto!

Eguzkiyari begira nago  
goizetik sartalderaño;

berak bai'dakus nik ikusiko  
eztedana egundaño.

Zergatik, Jauna, enauzu irazan  
eguzkiya, izafa edo,  
nere Aberi kutuna  
nabegirake egunero?

Irazalia, nere gogo au  
asetu dedin betiko  
ortzea ispildu, edo ni izartu  
EUKADI betiko ikusteko.

Lizaso'tar Pilipak iratizkiñez Donostian egin-  
dako itzaldi batetik artua. *Aberi-min* au olerkariyak  
bere idazkietan maiz agertzen du. Bere ametsa, bere  
lei bizia euskaldunen artean bizitzea izan zan. Etzuan  
beñere iritxi...



### **Nere Elia.**

(La meva llengua)

Zakust nere elez—dagitelako  
ifriseka ari—zerala,  
ta autik botatzen—euzkerantzako  
birau ta naiko—zitala.

Irain ariña—litzake iroiya  
zu baziñake—afotza;  
bañon euzkotar—añen gofiya  
gafatza da ta—zorotza.

Lore bakotxak—bai du margua,  
Euzkadi'k era—ere bai;  
txoriyak dagi—ots berezkua;  
nik nere euzkeraz—ari nai.

Maitemaite dut—Ama kufuna  
maite bear dan—bezela:  
Ankertuaren—dasakeguna  
da Ama'lakorik—ez dela.

Iñoiz ez dari—beiraka umia  
ama ote dan—landera;  
semiarentzat—ama maitia  
beti da polit—edera.

Ista dagizu—gure euzkerari,  
seme anker ta—dolora:  
Amaren ele—eztitsuari...!  
Auxen da biyotz—gogora!


Euzkel bitartez—pozaren pozaz  
artu zenuen—ezkona;  
zure emaztiak—zu-tan euzkeraz  
arkitu zuen—gizona.

Eriyotzian—“ene-enetxuak!”  
esango duzu—gure elez,  
ikusirikan—ume gaxuak  
zure onduan—negarez.

Jaupariyak be—erduta zintzo  
zure oyaren—ondora  
euzkeraz dizu—erakutsiko  
nolaz igotzen—dan gora.

Erdera nik ez—nai ta zuk autik  
botatzen duzu—zitala;  
bañan euzkeraz—egingo dut nik  
egiñaletan—eiñala.

“Jel-Alde” jaunari opaldua. “Jel-Alde” au zan  
Azkoitiar Iñaki Aba Buruñurduna, itzlari ta idazlari  
bikaiñenetakoa, abertzale sutsua. Ta orain ogeitabost  
urte aberzale izatea ta abertzaletasuna agirian aitor-  
tzea, etzan jolasketa txarā. Cataluña’ra bidalzu zuten;  
ta andik Mexico’ra; Mexico’tik lekaideak bota zituz-  
tenean Costa-Rica’ra juañ zan ta antxe il -beria da.



### **E r n e l**

Esayezu aguro,—abertzale ori,  
esayezu lenbailen—euzkotar orori

Euzkeraren etsayak—eruz dabilzela  
ito naiez euzkera—al duten bezela.

Bai direla Aberiyan—areiyo zorotzak,  
batzuek...—bestiak arotzak.

Ari dira lanian—efi guztiyetan,  
ari dira sayatzen—asmo beltz oretan.

Gaizto goñi denentzat—ori da arazua;  
*bai ta on askorentzat,— ene Jaungoikua!*

Esayezu ojuka,—euzkotar zintzua,  
*onak eta dolorak—daukaten asmua.*

Erdera jaso eta—euzkera zapaldu,  
erdeltzaliak ori—besterik nai ez du.

Beraz euzkeltzaliak—jo beza santzua,  
asper dezantzat ETSAI-ONA ALA GAIZTUA.

Beraz bi etsai-mota dauzka Aberiak: batzuek *arotzak* besteak... ez ditu izendatu, lotsaz noski; batzuek gaizto gori-dolorak, besteak *onak*. Baño. denak etsayak! Gauñeguneko *etsai on* auek ezagutu balitu! Ortxe ikusi ditugu, Aberi-Eguna ta auteskundeak zizirala ta etzirala, etsai gaizto—goriekin elkar artuta, abertzalien aurka arika eta tiroka. Bai ta abertzaleak ederki *aspertu* ere! *Etsai on'* en aurka autarkia eman ta!...



### **Ai Ama!!!**

Arótzak— ai Ama!  
euzkera darama.

Euzkadi, —esnatu,  
Euzkadi,—gorestu!

Baizaude—iya iya  
alabik—gabia.

Ez euki—begia  
lo-zofoz—betia.

Arótzak— ai Ama!  
euzkera—darama.



## Lekobidenia.

Antziñako jauregi, aundi izugafiya,  
mendi muñuan dago lerdengi jafiya  
Aitz gogoren gañian tinketz irasiya,  
len zan gudaletxia, orain sai-tokiya.

Añano ta saimotzen zaramara uzuak  
dirudiz sorgiñ-irak zoli ta zoruak;  
ala txaranak dira zurunbilatuak  
an dabiltzen egazti, saimotz-añanuak.

Orlaz ere zartadan ate batetikan  
etxetzar aundi artan laxter sartu nintzan.  
Txarñan, beliak, edo... orok ixil ziran,  
antxen utzirik neri bakar-bakarñikan.

Jauregi zara ei da Lekobide-etxia:  
Gudarako zer etxe Lekobidenia!  
Aitza bezin gogofa zan len jauregia;  
orain ordian, ene! jo du goyak bia.

Itokiñaz dirade zapayak erori;  
egatzak eroizturik, guztiya da ageri.  
Orma tartetan untza, zigu berebizi,  
luñian oziña ta naiko lar ta sasi.

Galdua zegok oroz Etxe Nagusiya;  
makuak lureratzen, lertzen añasiya,  
egetuko da safi ;txarñanen zoriya!  
azoin zakon bertatik jauregi guztiya.

Lekobide sendua! Erkaba lazkora!  
auxen bai dela gutzat ondiko gogofa.  
Gudaletxia zana ondatuta oñ  
txoilik ondope utza ta bakarñik zabofa.

Gezurtzafa dirudi gauz onelakuak,  
antziñan alako ta gaur onen galduak;  
zangar, zindo len eta orain, kaxkalduak,  
ez da lotsagafia auxen, ene euzkuak?

Parézka dari beti emengo sorgiña,  
euzkelduna ikusirik erdeldun egiña:  
Gau zomoro itxusiyen iseka samiña  
atsekabez biyotza lertzeko da adiña.

Lozofoz ofela're dakust euzkotafa;  
auxen bai tamala ta ori bai negafa!  
Ernetu dedin bertan betor oiñazkafa,  
ortots-ofobia ta luperko dardafa.

Lekobide-muñoa, egin zak bufuka,  
ero-bařen—azpitik asirik zabuka;  
Esaiguzu, Ortzia, goyetan ofuka:  
“Euzkuak Aberiya, non ote daduka?”

Ospe ona galduta, bai dugu gerena;  
gure eñu lariya da akatzik beltzena,  
lagiyak kutsaturik, et! emen obena  
ekaferazi dugu Euzkadi-guena.

Lekobideniako, sorgiñ-ireluak:  
utikan! kuku! kuku! Uxu zomofuak!  
Gaur ez da iztagirua; orain dute euzkuak  
ikusiko sumiña osoz bildurtuak.

...Sargori nazkatuak jotzen du txistua;  
ipar-aiziak dagi ots amurátua;  
bai dator oiñazkafa, baita're erasua:  
Izango dugu guda gaur purukatua.

Oldarean odoyak efuz bildu dira;  
ekaitz izugarriyak biraka ta bira  
mendiz-mendi datorzte Etxe-Nagusira,  
ulu-marfuak joka, egiten intzira.

Ozantzak oruz diyo: "Lekobidenia!  
Non dugu antziñako Lekobide-Etxia?"  
Goyetan bat-batian dager jurturia  
uxtuz idazten ortots beraren galdia.

Ozti zakar koronkaz bete dira aranak:  
sutu dira ta izeki sukarez oyanak,  
junik otoz-otoan len emen ziranak:  
mamuak, mozoñak, aztiyak, txafanak.

Bota ditu itxasuak kafanka ta ijua:  
Suminduaz dirudi artz elbaritua:  
Zauriyaren zauriyaz otso zakartua  
ez da beñere izaten oin elegatua.

Katazkan aramaka ari dira uñak  
kunkaka kuzkatutzen arkaitzaren oiñak.  
Laxter lertuko, ondiko! ditu gain-erpiñak  
ur aro oldakofaren indar-alegiñak.

Lertu zaigu ortzia, istandu da luña,  
astintzen du dardarka mendiyak galuña.  
Itaunak bai ditugu, baita're bildura.  
Entzun, entzun aguro, euzkotar anduña!

"Euzkotaña, ¿nun aukak orbangetasuna?  
Nun edo duk Euzkera, euzkeldun izuna?  
Abeñiya nun ote? nun Goiko ire Jauna?  
Euzkadi zafarekin, nun azkatasuna?"

Irail duk Abefiya; il zaik izakera;  
Urtzi-onestasuna jaurti duk aldera;  
ta Ama'tzat auturikan Amaizun Erdera  
oinpian lerdekatu eukan gure Euzkera..."

"Euzkera" ta buñunban darauntsa oztiya.  
"Euzkera" ta dardaizez ari da mendiya.  
Gotutsa dabil emen ikaragafiya.  
"Euzkera" ta gotzon bat jafi da ageriya.

Zemaketan gotzonak jasorik azkona  
aseréz beriz ere auxen da diyona:  
"Euzkaditik azama, euzkotar gizona,  
ta abil erdeiñatua ludiyan ar'ona.

Zatzelkitxidak onuntz nunnaiko arotza;  
ez, ordez, euzko lasai, ustel eta apotza;  
bestelaz nik arturik izkilu zorotza  
beraxek izango du dsanpez eriyotza!

Zatzai juazek laxter etoyak emendik:  
emen ez da euzkotar gel-bera beafik:  
Jauregi zara nai du orain gure Euzkadik  
negairezka aritzeko seme-ume gaberik.

Iñusturi suzkuak, tximistak etofi,  
eta suskuldurikan jafi goya gofi:  
Ozantak ere edatu berant ots-ofobi,  
zealdukatu arte malda, muño, mendi.

Aiziak, erasuak, guztiyok batian;  
eta odoyak bildu Lekobidenian:  
ta asi joka ta joka an, emen, gain, bian,  
euzkadi'tar-obenak aspertu artian.

Euzkera galdu da ta Euzkadi ere bai;  
izan lekitxigukek Nagusiya nornai.  
Ator, ba, afortz ori, ta jagoiti egon ai  
antziñako euzkuen jauregiyaren zai.

Lekobide zanian agintari emen  
lera lez ifixtaka giringaz lertutzen  
etsayak inburuzka amiltzen ziraden  
ortzitu arteraño lur-zulo bañenen.

Orain leize-sorgiñak eta apotoruak,  
txañan biyufi gaizto, bele ta añanuak,  
igo onuntz ibiltzeko ifaka nastuak  
nausaz irotu arte euzkotar-lepuak.

Dedik suge goñiyak zofoztu geztera,  
eta misto zitalez gebendu sañera  
azpitu duenari asaben Euzkera,  
berenganaturikan afortzen Erdera!

Azkenez, Lekobide, Basajaun ezaba,  
ager adi ire etxian, Lekobide Erkaba,  
eta gogor-zofozki idekirik aba,  
birautu zak irainka euzkotar bilaba”.

Eresi añigafi au oraindik argitaldu gabe zegoan.  
Bere egileak aintzakotzat artzen zuala dirudi; txu-  
kun-txukun bere eskuz idatzita zedukan. Azalpenik  
ez degu arkitu.

---

## Agur!

Agur, Euzkadi, euzkaditafen  
argiya!

Gora, jeikitzen asi zeraden  
euzkiya!

Ujui! ujujui! Bai datofela  
eguna;  
Auxen bai poza, auxen bai dela  
zoruna.

Ilunpetatik ortze aldera  
dijua;  
efiyetatik bertan kentzera  
lañua.

Gabian geunden biderik gabe  
galduak,  
ta ilundurikan tamalez gure  
goguak.

Ontzak onela urubi-ulu  
zegigun:  
*"Jun gera gu jun, guk egin dugu  
il. ta jun"*.

Zorigaiztoko ilotsa bera  
bai, añen!  
Geroztik etzen oju bat ere  
entzuten.

Aberiya il. ta etzen ifintzi  
santzorik;

ludi guztiya jafi zan aurki  
ixilik.

Eri maitia, Euzkadi kutun  
gaxua,  
zein ituna zan ontzak zegizun  
ulua!

...Bañan argia piztutzen dari,  
begira!  
Euzki gartsua bai dator safi  
ludira.

Itxar-itxartu, euzko zoliyak,  
lenbailen;  
zabal-zabaldu zuen begiyak  
bertantxen.

Argiya dator Egunabara  
bai dager;  
orain ez dugu, ene euzkotara,  
gaitz-ezer.

Jeiki ta atera Aberi ori  
lurpetik;  
zutitu eta gañera jafi  
burutsik.

Ta agur dagigun bero suzkua  
didarka;  
ta asi gaitezen eiten oyua  
indarka.

Gora izparingi euzkaditarén  
argiya!  
Aupa, jeikitzen ari zeraden  
euzkiya!!

## G u r e n d a .

**Erlyotzian**, iy-iyā ila euzko-erīya zegoen;  
dena galdua zegon gaxua Sabin etofī baño len.

Azken-asnasak egiten eta osagilerik iñon ez...  
Euzkadi-seme guztiyak zeuden Euzkadi'gatik negaéz.

Bai dijuala Euzkadi Ama! Iltzen zaigula gaxua!...  
Malko-malkoka, negar-negarka, ofela ari zan euzkua.

Bañon azkenez Goiko Jabiak bidaltzen digu Arana;  
ta Arana-Goiri Sabin aundiya etortzen zaigu gugana.

Geroztik, ene! zer atsegiña! zein itxaropen argiya!  
ikusirikan sendatzen dela euzkotafaren erīya.

“Surge et ambula”! jeiki ta aufera! Sabin'ek oju egiñik  
denak aufera! aupa guztiyok! aufera! diyo Euzkadi'k.

Ara nun diran, ara azkatasun eguzkiyaren izpiyak...  
Erne, mutilak! Jari lenbailen zabal-zabalik begiyak.

Gaba igarota, miñak utzita, zutik, Aberi kutuna;  
bai dabil pizkor, bai dator laxter... Gora azkatasun-eguna!

Beira, arabañak; napañak, beira argiya argitzen zein arin!  
beira zuberolapurditañak gipuzko-bizkaitañakin!

Ara basotik irten Eriya!... Egin, ba, denak ojua:  
Gora Euzkadi! Egin, bai, egin deadar eta santzua.

Indar-indaéz bete-beterik igotzen zaigu, begira!  
igotzen zaigu Euzkadi zaña Aralañ'eko mendira.

Mikel donea, Mikel donea! eman zayozu ezpata;  
Euzko-Eriya zure ondora ortarañoxe jun'da-ta.

Sabin aundiya, Sabin aundiya! berbiztu duzu Abenda;  
Euzko-semiak, Euzko-semiak! Ojuaz esan: GURENDA!!



Olerki onen kementsu ta adoretua! Onek dakafen abiadura sendo ta oldarkoia. Ta asieratik azkeneraño geroago ta kementsuago; geroago ta adoretuago! Orelakorik oraindaño ez degu erdel-elertietan ikusi. AITZOL ospetsuak itzaldi batean zion Efenderi Abaren olerki batzuei, euzko-elertian ez ezik, ludi guztiko elertietan goigoieneko mala zegokiela. Olerki oietatik bat auxe da noski.

Ta oni dañaien beste biak ez dira makalagoak.



### **Egi-Gurenda.**

Jeiki euzkeldun—euzkotar guztiyak:  
egunan gaude,—zabaldu begiak.

Biyotzak berotu;  
gogo denak sutu.

Ortze ederetik—datoz argi-izpiyak;  
igais egiñik—gaba beltz-ilunak.

Aupa euzkuak! — Aupa euzkeldunak!

Euri-jas gogor—izugarfizkua  
geratu da ta—ez da erasua.

Larogei urtetan  
ugalde artetan

egon oi zigun—Aberri gaixua  
beriz pizturik—dator bizitzera,  
dator aureñantz—zintzo jaraitzera.

Oraingo Noe—gure Erkaba Sabin  
etzitzaigun il;—emen da Euzkadi'n

*Jel-Ontziya* artezten,  
Kutxa Deuna zaitzen.

Erne, euzkotarak!—Irintz-santzo egin;

gurenda dugu.—Lertu ba bularak,  
egiñaz alaiz—oju-deadarak.

Aralarmendi—tontor gain-gañian  
Jel-Ontzi Deuna—jafi zaigunian  
Ortze'ren albuan,  
Mikel'en onduan,  
Goiko Jaunaren—urgaztasunpian,  
Arana'k sutsu,—pozez ilik iya  
dagizki itz abek: “Piztu da Aberiya!”.

Ara nun diran—Bizkai'ko mendiyak!  
Ara Laburdi Arabako eriyak!  
Ara Gipuzkua!  
Ara Napañua!  
Gora ta gora!—Betoz abestiyak.  
Aberri maite!...—Euzkadi kutuna!  
Aintza, ujui-ujui!—Gora azkatasuna!!

Ta oztadaña,—ilun oraindaño,  
argituago—eguzkiya baño  
zabaltzen da ustegez  
uztai eder bat lez  
Adur ibaitik—Ebro alderaño,  
geren Euzkadi—orla geldituaz  
lotuta Urtziren—laztan berotsuaz.

Egi-argiya—eragitzen dari  
gure eriyaren—alde guztiyari.  
Arana'n indafak  
oren dira azkarak!  
Sabin da alako—euzko irakaslari  
esnatutzeko—gizon argikoñak  
eta sartzeko—lurpian satorak!  
Usua usu—ta belia bele;

ez da gezufik—egiyaren alde.  
Aberiya aberi;  
atzeriya atzefi:  
ez da gezufik—egiyaren alde.  
Betuta laxter—uriyol zakafak  
garbitu dira—ur zikin nabafak.

Nun daude orain—egazti gautiyak;  
atzerizale—gizon bildurtiyak;  
Judas euzkotafak,  
areriyo txafak,  
gure lureko—suge ta piztiyak?  
Sabin aundiya—Sabin ospetsua,  
begira zer dan—“Lagi-Jaungoikua”.

“Jaungoiko-Lagi”—dasaiguzunian  
jafita txutik—Aralarmendian...  
goi-gañetik berantz  
gaiztuak lurperantz  
amildu dira—denak batbatian:  
“Nor gure kaltez?—gu aña, nork dira?”  
esan-ta darortz—orok ilundira.

Tximist-ozantzak —ekaitz-erauntsiyak  
ez dira geyo;—jun dira nekiak,  
etsayak, lapufak,  
gaizkile andufak,  
oñaze miñak—naste galgarfiyak.  
Gaurtik gentza da.—Euzkotar Abenda,  
oju ta oju:—“ GURENDA, GURENDA!!

---

## Argiyal

Ara ara  
argiya!  
Baidator  
euzkiya.

Argi befi,  
Argi zara.  
Jeiki, jeiki,  
euzkotaía!

Beira mendiyak sutan sutuak,  
sutan Euzkadi guztiya,  
ilunpetatik igo dalako  
gure asaben euzkiya.

Ara, ara  
euzkiya!

Argitu dira uri-basefi  
ta alde guztiko sayetzak;  
egundu eta egin igesi  
etsai, lapur ta gau beltzak

Ara, ara  
euzkiya!

Jeiki, jeiki,  
euzkotaía!  
Gora, gora  
Lege-Zara!

Aup, mutilak!  
azkar zintzo  
igo ta igo

malda-gora.  
Ez bildurtu;  
jo santzuak:  
Jaup! euzkuak  
su-lanbora.

Su-lanbo ta  
gar artian  
bat batian  
sartu gaitez:  
Gain oyetan  
ora argiya  
ta Abefiya  
su ta gafez.

Agur, agur, eguzkiya!!  
GORA, GORA, ABERIYA!!!



### Iztitxo a.

adia=lamento, estrofa.  
agotza=cáscara de trigo.  
ala=tormento.  
aizetzar=ventarrón.  
andur=ruin.  
anei=mil.  
anker=cruel.  
añen=blasfemia.  
apotoro=mónstruo, sapo.  
aratz=nítido, pulcro.  
arazo=ocupación.  
arerio=enemigo.  
arama=grito, bramido.  
arasi (arəsi)=muro.

- aspertu=vengarse (itz zafa).  
aokuz=en cortejo fúnebre (lapurditafen itza).  
aunka=aullido.  
azoin=cimiento.  
barendi=inpernua.  
dager=ageri da.  
dagizki=egiten ditu.  
dari=ari da.  
dariz=ari dira.  
darortz=erortzen dira.  
dolor=vil.  
donoki=zerua.  
egatza=tejado.  
egetu=arruinarse.  
elito=versículos penitenciales (Lapurdi-elki'tik).  
era=carácter, modalidad.  
eratsi (eratxi)=abatir.  
erauntsi-otsak=ruidos de tempestad.  
erio beltza=la fatídica muerte.  
erkaba=erriaren aba, patriarca.  
ertuna=eri-duna, enfermo.  
eskon,ezkon=esposo o esposa.  
eskondu=alcanzar.  
etoi=traidor.  
ezaba=oculto.  
gaitu=afligido.  
galtzuondo=rastrojo.  
gentza=pakea.  
geztera=aguijón de culebra.  
geznari=mensajero.  
gifinga=chirrido.  
gotzon=aingeru.  
guda=guerra.  
gurenda=victoria.  
igazkor (igarokor)=transitorio, fugaz.

- ijutu=saltar.  
ikertu=visitar.  
ikuñin=bandera.  
iletariak=plañidoras.  
ilotsa=canto fúnebre.  
iloztu=morirse.  
irain=ultraje.  
irafi=imprimir.  
irelu=duende, fantasma.  
iroi=reproche.  
ifa=danza.  
iraka, iraida=baile en ronda.  
ista (izta)=burla.  
itokin=gotera.  
itun=triste.  
itxaron=esperar.  
itxaski=ola, oleaje.  
jagoiti=en adelante.  
jaurtiki (jaurtigi, jaurtin, jaurti)=lanzar.  
jazarkatu=perseguir.  
juzturi=trueno, relámpago.  
kañanka=bramido.  
katzka=esfuerzo grande.  
koñonka=ronquido.  
kuzkatu=chocar, estrellarse.  
lander=pobre.  
lerden=esbelto, enhiesto.  
makuak=los arcos.  
margo=color.  
mañaska=chillido.  
nausaz=con escarnio.  
neskutza=birjiña.  
oben=pecado.  
obendi=pecador.  
obenge=sin pecado.

- odei baldafak = nubes de vendabal.  
oldafean = en un momento.  
oldarkor = osado.  
ondikoz! = ay! por desgracia.  
onetsi = bedeinkatu.  
oñazkar (oñaztar) = relámpago.  
ofobi = rugido.  
ortots (ortze-ots) = trueno.  
ortze = cielo físico, firmamento.  
osterarien ereserkiya = himno de los peregrinos.  
otoz-otoan = de improviso.  
ozanza = trueno.  
oztadar = rco-iris.  
ozti = tronada, nubarrones.  
sargori = bochorno.  
sumindu = irritarse.  
tamal = naigabe aundia.  
tink = firme.  
txairu = airoso.  
txaian = deabrua.  
ulu = graznido de buho, lamento.  
urgaztasuna = providencia.  
urña = hediondez.  
Urtzi = Jaungoikoa.  
uruma ta zemaka = rugiente y amenazador.  
uriyol = inundación.  
uxtu = silbo.  
uzu = bravo, fiero.  
yagon = gorde.  
zakust = ikusten zaitut.  
zamo = astuto.  
zangar = forzudo.  
zardain = zugaitz aundia.  
zealdokatu = tambalea.  
zekusala = ikusten zuala.



zemaí=amenaza.  
zigu=yerba parietaria.  
zindo=honrado.  
zital =veneno.  
zoli=vivo, despejado.







# ARKIBIDEA



	<u>Oinak</u>
Safera. . . . .	3

## I'go. Saila.—OTOITZAK.

Josu-Biyotzaren Abestiya. . . . .	9
Oroitu zaitez!.. . . .	10
LOURDES. Osterariyen Ereserkiya . . . . .	11
Lourdes'ko Ama'ri. . . . .	13
Deun Pantzeska-Irugafen Batzaren Ereserkiya. . . . .	14
Gurtza. . . . .	16
Arantzazuko Miren Garbiyari. . . . .	18
Miren efu-gabia. . . . .	20
Agur! . . . . .	21
Ama Tamaltsua. (Stabat Mater Dolorosa). . . . .	22
Bi Egubefi-abesti. . . . .	24
Kistoren gogua. . . . .	25
Josu maitiari. . . . .	26
Atoz, Jaun ori. . . . .	27
Josu Biyotzaren Abestiyak. . . . .	28
Enara gaxual! . . . . .	35

## II'gañen Saila. ABERI-OYUAK.

Sabin! . . . . .	37
Negar! . . . . .	40
Juan zan! . . . . .	42
Eguzkiyik gabel! . . . . .	43
Euzkeraren Eriotza. . . . .	44
Ufexindofa. . . . .	47
Uxua. . . . .	47
Karnaba. . . . .	48
Abefi-Miña. . . . .	48

	<u>Oñak</u>
Nere Elia. . . . .	49
Erne! . . . . .	51
Ai Amall!. . . . .	52
Lekobidenia. . . . .	53
Agur!. . . . .	58
Gurenda. . . . .	60
Egi-Gurenda.. . . .	61
Argiya!. . . . .	64
Iztitxoa. . . . .	65







1,25.